

Donostia, 2016ko apirilaren 22a

## IDAZKARI NAGUSIARI:

### KONTROL MOZIOA, PARTAIDETZAZKO AURREKONTUEN GAINEKOA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Ogasun Batzordean egin zen interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Uste dugu herri partaidetzak izan behar duela gobernu ekintzaren printzipioetako bat. Halaxe dio indarrean den legediak eta halaxe eskatzen du gizartearen parte handi batek ere. Herri partaidetza publikoaren apustu berritzaile bat, udal baliabide publikoak komunitatean planifikatzeko oinarrizko printzipio gisa partaidetzazko demokrazia aldeztu duena, partaidetzazko aurrekontuak dira. Era horretako aurrekontuen helburu nagusia da udalbatzen inbertsio politikari buruz eztabaidatzeko eta erabakitze gune bat sortzea herritarrekin.

Uste dugu hurrengo udal aurrekontuak prestatzeko garaia egokiera ona izan daitekeela Udalaren funtzionamendu demokratikoa hobetzeko, herritarrei pisu eta protagonismo handiagoa emateko eta aurrekontuak hain urrutiko eta hain arraro ez suertatzeko; izan ere, oso gai garrantzitsua da hori, baina oso urrunekoa askotan.

Partaidetzazko aurrekontuetan kontuan hartzen dira hiriko elkarteek, taldeek eta herritarrek adierazitako beharrak eta udal kudeaketaren zenbait alderdi hobetzeko egindako proposamenak; hala, herritarrek udal kutxarako jartzen duten diruaren parte bat, urtero-urtero, zuzenean haiek erabakitako horrexetan erabiltzen da. Uste dugu, gainera, partaidetzazko aurrekontuetan lekua izan dezaketela normalean erabakiak hartzeko prozesuetatik kanpo egon ohi diren taldeek eta pertsonak.

Herri Partaidetzari buruzko Arau Organikoak, 2007an onartuak, jasotzen ditu era horretako aurrekontuak, baina, egiaz, gutxi batzuetan baino ez da egin aurrekontuak hala egiteko saioa, eta, azken urte honetan, EAJ eta PSE udal gobernuan sartzeaz bat, alde batera utzi da guztiz.

Hala ere, uste dugu era horretako aurrekontuak abian jartzeak ez duela laguntzen bakarrik udal baliabideak zertan erabiliko diren erabakitzen, baizik eta baita beste alderdi hauetan ere:

- Herritarrek Donostiako bizimoduan modu esanguratsuan eragiten duten erabakietan parte aktibo eta konprometitu izan daitezen sustatzea, eta, hala, hirian gertatzen denaren protagonista aktibo bihurtzea.
- Ahalik eta parte hartzerik handienarekin bilatzea egiaz ditugun beharrentzako irtenbideak.
- Herritarren autoestimua eta erantzunkidetasuna indartzea, udal bizitza politikoaren parte garrantzitsu gisa.
- Erabakien gardentasuna sustatzea eta administrazio prozedurak eta Udalaren barne funtzionamendua ezagutzea.
- Herritarren, ordezkari politikoaren eta administrazio teknikarien artean eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko guneak sortzea, komunitate sena oinarri hartuta, bidezko eta berdintasunezko hiri bat eraikitzeko.

Gure ustez, udalbatzaren betekizuna da udal aurrekontuak egiteko orduan donostiarrei entzutea, eta, horretarako, beharrezkoa iruditzen zaigu partaidetzazko aurrekontuen araudi bat egitea.

Hori guztia dela eta, hauxe da gure

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jar dezala herritarrek parte hartzeko mekanismoren bat, 2017ko aurrekontuetan haien ekarpenak sartzeko.
2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari aurkez dezala partaidetzazko aurrekontuen araudi bat, 2017tik aurrera aurrekontuak araudi horren arabera egin daitezen.

Sinatua: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea